

Semealabak

GETXOKO GURASOEN ESKOLAREN ALDIZKARIA



Egunerokoa



Asteburuan nire urtebetetzea izan da. Beno, egiatan nire urtebetetzea duela ia bi aste izan zen, baina larunbatean ospatu genuen, Eneritzekin eta Anderrekin batera ospatu nuelako.

Aurten beste toki batera joan gara ospatzera, nire gurasoek esaten dutelako aurreko urteko tokia ez zela nahikoa ona. Baina niri asko gustatu zitzaidan; oso ondo pasa nuen, eta jana oso goxoa zegoen.

Baina aurtengo tokia ere ondo zegoen. Sekulako bideo joko makinak zituzten: gainean eseri zintezkeen eta karrera auto bat gidatu zenezakeen. Wii eta Playstation ere bazituzten, baina jana ez zait hainbeste gustatu...

Oier eta Saioa etorri dira, nire lagunik onenak, eta oso zoriontsu egin nau haiekin arratsalde osoan jolasteak, baina Saioa triste samar zegoen bere aita ez zelako etorri; inoiz ez da horrelakoetara etortzen. Egia da, nire aitaz gain, aita gutxi zegoela festan, amatxo gehiago etortzen dira beti.

Onera opariak irekitzea izan zen, baina, egia esan, momentu batean apur bat larritu nintzen, mundu guztia niri begira zegoelako, haien oparia irekitzea nahi zutelako, eta gainera, gustukoa izatea nahi zutelako. Gaizki samar pasa nuen asko gustatu ez zitzaidan baten bat ireki eta zein aurpegi jarri jakin ez nuenean, oparia egin zidana ez nahigabetzeko.

Azkenean gauza pila bat eramán nuen etxera, batzuk besteak baino ederragoak; batzuk ez zitzaizkidan asko gustatu, baina ez naiz ondo gogoratzen oparitu zidaten guztiaz. Hortxe daude, etxeko poltsa batean... Begiratuko ditut apurka-apurka.

Oparitu zidaten guztiaren artean bazegoen, bai, izugarri gustatu zitzaidan zerbait: itxura eta garaiera guztietako eraikinak egiteko blokeak, pegatinak eta beste materialak zituen jolas bat, paperezko hiri oso bat eraikitzeko. Bikaina da! Gainera, jende gehiagorekin jolastu daiteke: ahizparekin jolastu naiteke.

Baina ez daukat gogoan nork oparitu zidan...

Bihar nire urtebetetzea izango da... Nire festara etorri nahi al duzu?

Seme-alaba txikiak ditugunok soberan dakigu zenbateko ilusioa egiten dien beren urtebetetzea ospatzek; egun berezia da haienentzat. Gainera, polita da txikitatik sortzea haien urtebetetzea ospatzeko festa bat antolatzeko familiako tradizioa.

Nork ez dauka gogoan urteak betetzeko ilusioa? Aurreko egunetako urduritasuna; lo egitea zaila zitzaigun gau horiek, etxean antolatutako festak zetoze-lako zirrara zela-eta (batez ere gure amek antolatuak, animatzaile, sukaldari, ekitaldi antolatzaile eta abar nekaezin horiek...); altzariak mugitzea, puxikak puztea; oparitutakoarekin jolastea; eta normalean gure menuan sartzen uzten ez zizkiguten gauzak merientatzea.

Duela gutxi arte, ospakizunetan familiarekin eta lagunekin biltzen ginen, ondo pasatzeko, jolasten, barre egiten, etxean eta modu ekonomikoan gozatzeko; haurrek ederki pasatzen zuten... eta gurasoek ere bai. **Parafernaliaren edo nabarmenkeriaren beharrik gabe.**

Egun berezi bat ospatzea zen helburua. Berezia, haur kopuruagatik, askariagatik, ordutegi lasaiagoengatik –hurrengo egunean eskola izan arren–, eta abar; baina hori zen guztia, besterik ez. Urtebetetze opariak familiaren eta gertuko lagunaren kontua ziren.

Baina atzean geratu dira festak tarta baten inguruan egiten ziren garaiak, litxarreriak lagunaren artean partekatzeke, etxeko egongelan edo sukaldean jolasean, gure familien zaintzapean.





Gauzen giza balioa galtzen da, baita ospakizunean garrantzi gehien duena ere: lotura emozionala.

Gehiegizko ospakizunak

Orain guztiz desberdina da dena; **badirudi joera gehiegikeria dela**: animazio handiak, festa txundigarriak, jan bitxia, gehiegizko apaingarriak... Badirudi haurrentzako festek pailazoak eta gaztelu puzgarriak izan behar dituztela, urtebetetzeak bihurtu direla urteko ekitaldi sozial garrantzitsuen (bai haurrentzako beraientzat, bai beren gurasoentzat).

Beharrezkoa al da hori guztia?

Gaur egun, haurrei erakusten ari gatzazkie "oparirik gabe ezin dela urtebetetze batera joan", alegia, dibertsioa, entretenimendua eta haien urtebetetzearen ospakizuna merkantilizatzen ari gara. Badirudi gauza eta opari gehien dituen festa dela onena. Gauzen giza balioa galtzen da, baita ospakizunean garrantzi gehien duena ere: lotura emozionala. Ulertarazi behar diegu egiazko oparia gu geu gara. Irakatsi egin behar diegu egun horri dagokion emozioarekin konektatzen, eta xehetasun guztien atzean dagoen esfortzua baloratzen.

Gaur egun bizi garen kontsumo gizartean, sine-sarazten digute gure seme-alabei maitasuna adierazteko modu bakarra dela opariak egitea. Publizitateak, hedabideek eta guraso askok egun osoan lan egin beharra izateagatik duten erru sentimenduak konbinaketa onena osatzen dute haurrek eskatu dezaten, behin eta berriz, behin eta berriz. Jostailu modernoak izan nahi dituzte (bigarren egunerako baztertu dituztenak), eta gauza oso garestiak espero dituzte data berezietan, adibidez urtebetetzeetan eta gabonetan. Horregatik betetzen dizkiegu logelak jostailuz eta betetzen ditugu haien eskaera guztiak.

Horren ondorioa dira, ikerketen arabera, zapuztutako haurrak, irudimen urrikoak, erosoak, eta helduak direnean nahi dutena izateko ahaleginik

egiten ez dutenak. "**Haurtzaro hiperoparituaren sindrome**" hori arazo bat da etorkizuneko belau-naldientzat.

Geroz eta urtebetetze gehiagotan dago ikasgela osoa, batzuetan bakarrik, eta besteetan urteak betetzen dituen gela berdineko beste haur batekin. Bide horretatik, zabaldu samar dago gaur egun festak hiruhilekoka ospatzea; horrek badu desabantaila bat: zure urtebetetzea ez den egun batean edo hilabete batean ospatu beharra. Dena dela, gaurko ospakizunak zoramena dira: hamarnaka haur saltoka. Makrofestak dira, bi taldeetako (edo hiruretako) ikasle guztiak gonbidatzen dira. Alde batetik ondo dago hori, inor ez baita alboratua sentituko, baina, bestetik, burugabekeria da, ikasturte amaierako festa kopurua dela-eta.

Horrela, topo egiten dugu beren gurasoek baino bizitza sozial aktiboagoa duten haurrekin. Agenda soziala josita dute festa despertsonalizatuz, artifizialez, estereotipatuz eta garestiz, **eta tentazioa izan dezakegu horietan gure haurraren inklusioa erosi nahi izateko**.

Baina, egiaz, zertarako egiten diegu hori? Agian geure buruekin zerikusia duen zerbait da, guraso gisa, haien festa "onena izan dadin" eta "mundu guztiak gogora dezan" bilatzea, antzezlan horren atzean **ezkutatzuz nabarmentzeko eta garrantzitsu sentitzeko heldu bezala dugun beharra?**

Behar ditugunak baino askoz gauza gehiago ditugu, eta dinamika berari jarraitzen diogu gure seme-alabekin, ez beren urtebetetzeetan soilik, baita egunero ere, edozein direla ere beren lorpenak eta ahaleginak.

Urtean behin urte bat betetzen duten printzeen eta printzesen pare tratatzen ditugu, beren urtebetetzeak handitasunez ospatzen ditugu, eta, gainera, itxurakeria apur bat jartzen badiogu, hainbat hobeto, **inbidia sortzen duen zoriontasuna askoz zorionekoagoa delako**.

Badirudi helburu nagusia ahaztu egin zaigula: haur bakoitzarekin urtebete gehiago betetzeko zortea ospatzea, hain zuzen. Badirudi gutxi iruditzen zaigula askaltzea, jolastea, kandelak itzaltzea eta "zorionak zuri" kantatzea.

Horregatik guztiagatik, geroz eta familia gehiagok uste du haurren urtebetetzeen kontuaren kontrola galtzen ari dela. Guraso horiek ez dakite nola aurre egin urtebetetzeak ospatzeko modu horrek dakarrenari, edo ez diote aurre egin nahi, baina ez dakite nola irten dinamika horietatik, ia inoiz ezin baita horrelako gauzekin korrontearen aurka jo, taldearen indarra handia delako. Kosta egiten zaigu ezberdinak izatera ausartzen, ondo ez gelditzera.

Egitan haurrek ez dute gehiago gozatzen horrelako erakustaldiekin guk lehen gure Nocilla eta foie gras sandwichekin eta edateko Fantarekin gozatzen genuena baino, lagun gutxi batzuk ekarri eta arratsaldean eskola eta gero etxean jolasean. Ez gehiagorekin ez gutxiagorekin.

Txikiak ez dute horrenbesteko parafernaliarik behar zoriontsu izateko: poz-pozik daude litxarrerria batzuekin, beren lagunekin, eta opariez gozatzen familiarekin denbora gehiago eman ahal izatearekin. Burutik kendu behar da zoriontasuna diru kopuruan datzala dion ideia oker hori.

Horregatik, egon daitezke haurrentzako lokal horietako makro festa horiek ez diren beste aukera errazagoak eta merkeagoak; horiek, kasu batzuetan, gure denbora gehixeago eskatuko dute.

Egin dezakegu beste modu batera...

Ez dago ito beharrik, nahikoa da gauzak antolatzea denbora apur batekin, ideia errazekin, eta kontuan izanda ez dela aurrekontu handirik behar. Hona hemen ideia batzuk, haurrentzako urtebetetze festa ahaztezin bat antolatzeko:

■ Data eta leku egokiak aukeratu

Litekeena da urtebetetzearen data asteko eguna izatea; horregatik erabaki behar dugu noiz den egun egokiena, eguna bera edo asteburua, adibidez. Urteko garaiak baldintzatu egingo du festa egiteko lekua: etxean edo kanpoan. Lokal bat alokatzeak asko garestituko du festa.

Beren gurasoek baino bizitza sozial aktiboagoa duten haurrek.





■ Gonbidatuak eta gonbidapenak

Garrantzitsua da erabakitzea nor gonbidatuko dugun. Baloratu beharko duzue zenbat espazio duzuen, batez ere urtebetetze festa etxean egingo bada. Kontuan izan festaren mamia umeak berak izango direla, eta, horregatik, interesgarria dela heldu baino haur gehiago gonbidatzea. Beren urtebetetze festak antolatzen lagundu dezaten, eta lagunak aurrez aurre gonbida ditzaten, oso entretenigarria izango da gonbidapenak beraiekin batera prestatzea, **haurrak bere irudimena eta sormena erabili ahal izateko.**

■ Nahitazeko elementu bat: apainketa

Garrantzitsua da gure urtebetetze festari ukitu bat ematea, serpentinekin, giraldekin eta gozo eltzeekin, globoekin eta antzekoekin.

Ez da beharrezkoa diru asko gastatzea apaingarritan, eskuz egin baititzakegu, familian; ekintza hori elkarrekin egitekoa da, eta ilusioz beteko ditu.

Badirudi gutxiegi iruditzen zaigula askaltzea, jolastea, kandelak itzaltzea eta “zorionak zuri” kantatzea.

Haurrak bere irudimena eta sormena erabili ahal izateko.

■ Urtebetetzeko jana: menu osasungarria eta erraza

Emango dugun jana festaren alderdi garrantzitsu bat da. Sormena erabiltzen saiatu behar dugu, eta plater soilak, prestatzeko errazak, gozoak, jateko erosoak, eta, aldi berean, dibertigarriak eta erakargarriak izan behar dute. Ohiko zernahitarako sandwichez, patatez eta gozokiez gain, aukera osasungarriagoak ere erabil ditzakegu; adibidez, fruta broxetak, zuku naturalezko gelatina, fruitu lehorrak edo chipsak, haurrek gauza gozoak eta osasungarriak jan ditzaten. Tartak ezin du hutsik egin, noski.

■ Jolasak eta sorpresak

Haurren urtebetetze bat ezinezkoa da jolasik gabe. Haien entretenitzeko eta parte hartzeko modu onena da, bakarka jolastu beharrean.

Nahikoa izango da jolas posibleen zerrenda bat eramatea. Hoberen funtzionatzen dutenak betikoak dira.

■ Opariak

Opariak egitea derrigorrezkoa ez den arren, azkenean familiak edo gertuko lagunek erabakiko eta adostuko balute opariren bat egitea, kontuan izan beharko dira hainbat alderdi, haur bakoitzaren adina eta gustuak, adibidez.

Opari on batek ez du zertan jostailu bat izan behar; aukera eman behar die osorik hazteko pertsona gisa, ekarpenen bat egin behar die epe laburrean eta luzean. Hobe litzateke material naturalez eginak egotea, esaterako, egurrez, oihalez, feltroz, kartoi, eta abarrez; eta elektronikoak ez izatea, pilarik gabekoak, batez ere haur txikienentzakoak. Aukera ona dira helburu jakinik ez duten jolasak, beren sormen guztia erabiltzeko aukera ematen dietenak: eraikin jolasak, jostailu tradizionalak, joko desegituratuak, esperimentatzeko eta bere gorputza ezagutzeko aukera ematen dieten materialak (sokasalttoa, goma, eta abar), edo beren inguruko mundua ezagutzeko aukera ematen dien edozer.

Saiatu beharra dago adin guztietan irakurzaletasuna sustatzen; beraz, ipuinak edo liburuak aukera ona dira beti.

Oparien ezaugarriak, adinaren arabera



Bi urtera arte

Ez dute ia jostailurik behar, eta opariak haurren estimulazio psikomotorea, heldzea eta soziabilitatea sustatu behar dute.

Bi urtetik bost urtera

Gomendagarriak dira irudimena, oroimena eta eskuzko abilezia sustatzen dutenak.

Eskola adina

Arauk eta beste jokolariak behar dituzten jokoak, arazoibide mentalak gara ditzan.

Azken finean...

Hainbat aukera daude gure seme-alaben urtebetetzea ospatzeko, guztiek balio dute, baina guztiok ez dugu zertan saiatu behar besteen itxaropenak betetzen eta ez dugu zertan mugatu behar ospakizun mota batera. Are gutxiago ospakizun mota horrek badakar geure hezkuntza irizpideen eta haurrei transmititu nahi dizkiegun balioen aurka egitea, eta, hori gutxi balitz, gure ekonomiaren aurka badoa.

Azken finean, helburua da haurrak ondo pasatzea, gozatzea, haren lagunekin batzea, dibertitzea, errutinatik kanpo dagoen zerbait egitea, eta bere egun bereziaren antolaketan nahas dadin. Helburua ez da errege edo erregina izatea, edo opariz ito dezaten, edo kontsumismoa sustatzea, inor baztertzea, mundu guztia gonbidatzeko beharra sentitzea, edo, azken finean, **beren gurasoen egoak asebetetzea.**



Bizitza asteroko ospakizunak baino askoz gehiago da, eta balio horiek ikasi egin behar dituzte, etorkizunean ez dezaten errealitatea aurrez aurre jo. Eta ordena apur bat jartzen badugu, gauza normalak modu normalean eta egunerokoan ospatzeko? Eta ohikoa normal bilakatzen badugu?



Baliabideak [Gomendatutako liburuak]



Munduko oparirik ederrena

Idazlea Claudia Bielinsky | **Argitaletxe** Ibaizabal

Adina 3 urtetatik aurrera

Hartz aitaxoren eguna da, eta bere seme-alabek zin egin diote munduko erregalirik onena oparituko diotela. Berak arrasto bat aurkitu du, eta bere oparia bilatzen hasi da, etxeko bazter guztietatik. Bilatzen duen leku bakoitzean azal hegal bat dago, eta horietan animalia desberdinak, 1etik 10era. 10 zenbakia bere hamar seme-alabatxoei dagokie, munduko oparirik onenari.



La lista de cumpleaños

Idazlea Anna Manso | **Argitaletxe** SM

Adina 7 eta 8 urte bitartean

Nire urtebetetzean, oparitzea gustatuko litzaidakeen gauza guztiekin zerrenda bat egiten dut. Baina aurten, nire gurasoek tranpa egin dute eta soilik gorde ezin daitezkeen gauzak idazteko eskatu didate. Ez dakitena da nire zerrenda berrirako ideia pilo bat ditudala. Sarritan, oparirik onenak ez dira dendetan aurkitzen, irudimeanean baizik.

Getxoko gurasoen eskola

Informazio gehiago nahi baduzu:
94 466 01 51

Ikastaroak hiru saiokoak dira.

Adierazitako data lehen saioarena da.

Ez da beharrezkoa aldezturik apuntatzea. Lehen egunean, dagokion ikastetxean agertzearekin nahikoa da.

Edozein arrazoiengatik ezin izango bazinete lehen egunean agertu, ondorengo saioetara joan ahal izango zinatekete.

Zure seme-alabak ikastetxeak ez badira, eta ezagutzen ez baduzu, atezaintzara edo gurasoen elkartera (GE) jo saioak non egiten diren adieraz diezazuten.

Ekintzak doakoak dira.

Lehen egunean gutxienez sei pertsona agertzen ez badira, bigarren ahalegin bat egingo da eta, haren ostean, gutxieneko parte-hartzaile kopurua ez badago, ikastaroa bertan behera geratuko da. Zonaldearen barnean zer aukera dituzuen esango zaizue. Garrantzitsua da lehen egunean agertzea.

Jardueren egutegia 2018 Martxoa-Maiatza

GAIA	DATA	ORDUA	IKASTETXEA
Emozioak ezagutzen eta onartzen	Martxoak 1, osteguna	16:00	Zubileta
Adimen emozionalaz hezten	Martxoak 1, osteguna	18:30	Romo
Aspertuta nago! Zer egin dezaket?	Martxoak 2, ostirala	15:00	Divino Pastor
Adikzioen menpe: tabletak, bideojokuak, apustuak, drogak,...	Martxoak 7, asteazkena	16:00	San Ignacio
Zertan dabil mugikorrarekin hainbeste denbora?	Martxoak 7, asteazkena	18:00	J. Caro Baroja
Nerabeekin eta beraien mobidekin elkarbiziz	Apirilak 9, astelehena	16:45	Trinitarias
Zertan dabil s@rean?	Apirilak 11, asteazkena	18:30	Aixerrota
Joku eta asperdura osasuntsua	Apirilak 13, ostirala	09:00	Larrañazubi
Drogaz hitz egiteko gazteegia ote?	Apirilak 13, ostirala	14:30	Zabala
Edaten duelakoan nago	Apirilak 26, osteguna	18:00	Azkorri
Berdintasuna etxean hasten da	Maiatzak 8, asteartea	09:30	Gobela
Bitzita jasanezina egiten didate eskolan (bullying)	Maiatzak 15, asteartea	17:00	San Nikolas
Triste dabil...zerbait gertatzen ote zaio klasean? (bullying)	Maiatzak 16, asteazkena	15:00	Geroa
Pubertaroa eta nerabezaroa zehatz-mehatz	Maiatzak 16, asteazkena	17:15	Europa
Printzesa larrosa eta printze urdina... edo ez?	Maiatzak 17, osteguna	17:00	Andra Mari

